

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEN
LITERATURA ETA ARTE KOADERNOAK

TESTUA ETA ILUSTRAZIOAK **kepa etxebarria sagarzazu**

AZALA ETA DISEINUA **m u x**


LEGE GORDAILUA/DEPÓSITO LEGAL/DÉPOT LÉGAL:


EUSKAL HERRIA 2005

ataramiñe kultur elkartea argitaratzen du




Publikazio hau copyleft erakoa da. Beraz, bere edukiazabaldu, aipatu eta hitzez hitz kopiatu daitezke, osorik zein zatika, edozein medio erabiliz eta edozein helburu lortzeko, ohar hau mantentzen eta jatorria aipatzen den bitartean.






Azeri
gosetia






Kepa Etxebarria
Sagarzazu
1975
Donostia



1999. urtean atxilotu eta
espetxeratu zuten.

Egungo destinoa:
Centro Penitenciario A Lama
Monte Racelo, s/n
36.830.A Lama
(Pontevedra)




A large, abstract marbled background image covers the central portion of the page, featuring intricate patterns of grey, black, and white swirls on a light blue background.

Hilakoa, maitia, ...
orain kaltzau boquna...
elkartuta jai ahaldu,
une batez inoizina.
Ez ehi orru, iristea da
atzatasuna, jakinua!
Mpaia zituz laztasuneko dute
goma oren kralerikoa.


Hilakoa, zutik orria Yolky. Kipa.





AZERÍ GoSETIA




Bazen behin Ainhoa
izeneko neska
bihurri bat eta
baserri batean bizi
zen bere gurasoekin
batera.









Inguruko basoetan
Ximon izeneko azeri
bat bizi zen ere.
Gauero inguruko
baserrietan sartzen zen
biztanle guztiak lotan
zeudela aprobetxatuz
eta aurkitzen zituen
abere gehienak
bahitzeko.









Ainhoak ondotxo ezagutzen
zituen Ximonen
gaiztakeriak, horrexegatik
gauero leihoa orduak
ematen zituen Ximonek
bertako abereak lapurtu
ez zitzan baina
gehienetan...loak hartzen
zuen.





Ximoni ez zitzaison
Ainhoaren jarrera
gustatzen, horregatik
Ainhoa bera ere
bahitzea erabaki zuen.





Behin Ximonen kubazuloan:

- Gaur gauean arkumea afaltzea
pentsatuta nuen baina...zu jango
zaitut.- esan zion Ximonek
Ainhoari.

- A bai? Ba pena haundia
ematen dit, ze gauerako patata
tortila bat prestatzeko asmoa bait
nuen baina...


- Patata tortila, zer da hori?-
galdetu zion azeriak bere
barneko jakin-nahiak piztuaz.




- Gizakiok jaten dugun jaki
goxo bat.- erantzun zion Ainhoak.







Ximonek  ez zuen
patata tortila dastatu gabe
geratu nahi, horregatik
bere hasierako asmo
guztiak alde batera utzi
eta Ainhoari patata tortila
prestatzea utzi zion.






Txudituta geratu zen
Ximon patata tortilarekin.
Bere bizitza osoan ez zuen
horrelakorik dastatu,
horregatik eta zapore
berriak dastatu nahi
zituelako, ideia berri bat
bururatu zitzzion.








Ainhoa, pentsatzen aritu
naiz eta... momentuz ez
zaitut jango, baina horren
trukez, gizakiok jaten
dituzuen jaki goxo
horietakoak prestatuko
dizkidazu, zer deritzozu?




Eta halaxe izan zen.
Ondorengo egunetan
Ainhoak milioika jaki
ezberdin prestatu zituen,
guztiak Ximonen
goxamenerako: kroketa, kroketak,
arrain zopa, legatza saltsan,
lekkak, porrusalda, arroza,
babarrunak, marmitakoak
eta abar.







Ainhoak ordea bere
baserria eta gurasoak
botatzen zituen faltan eta
Ximonen berekiko jarrera
asko aldatu zen, beraz
une ezin hobea zela
pentsatu zuen Ximoneri
bere eskaera egiteko:
Zera...ni neu ere
pentsatzen aritu naiz eta...
zer deritzozu nire
baserrira bizitzera
etorriko bazina?—
Proposatu zion Ximoni.








Berehala adostasun batera
heldu ziren eta azeri
gosetia Ainhoaren
baserrira bizitzera joan
zen. Aurrerantzean ez
zituen bertako abere
gehiago lapurtuko eta,
horren trukez, Ainhoak
prestaturiko jakiak
dastatzen jarraituko zuen.










Gaur egun oraindik
guztiak elkarrekin
bizi dira eta zoriontsu
bizi direla esaten dute.







Keparen jatorrizko ipuina ➔

AZERI GOSETIA

Bazen behin,
Ainhoa izeneko
neska bihurti bat,
baserri batetan
bizi zena bere
qurasoekin batera.



Injuruko basoetan ere
Ximon izeneko azeri
bat bizi zen.

Gauero injuruko
baserrietan sartzen zen,
quzliak lolan zeu-
dela aprobelxaluz,
aurkitzen zituen abere
gehienak bahitzeko.



Ainhoa ondotxo
ezaqulzen zituen
Ximonen qaitza.
Keria, horrexegai
tik gauero leiohan
ordua ematen
zituen Ximonek
bertako abereak
lapurtu ez zedin
baina qehienetan...
Loak hartzen zuen.

BEEEE!!
BEEEE!!
BEEEE!!

Ximoni ez zitzaion
Ainhoaaren jarrera
gustatzen, horregaitik
Ainhoa bera ere
bahitza erabaki
zuen.



Ximonen kobazuloan:
X-Gaur ganean arkumia
apaltzea pentsatuta mien
bainza... zu jango zaitut
A-A bai? ba perna
haundiak emaln
dit, ze gauerako
patala tortila
bat prestatzeko as
moa ruen, baina...
X-Zer da hori!
A Gizakiok jaten duquen taki qoxo bat.



Ximonek ez zuen palala tortila dastatu qabe geratu nahi, horregaitik bere hasierako asmo quziak alde batela. Ra utzi eta Ainhoari palata tortila presentzera utzi zion.



Ximon Ixundilula geratu zen palala tortilarekin. Ez zuen bere bizitza osoan horrelakorik dastatu, horregaitik eta zapore berriak dastatu nahi zituelako, idei berri bat buruatu zitzaion.



X- Ainhoa, pentatzan aritu naiz eta... Momentuz ez zaiztu janqo, baina horren truke, qizakiok jaten dituzuen jaki goxo horielakoak prestatu luko dizkidazu, zer deritzozu?



Eta halaxe izan zen, ondorenqo egunetan Ainhoak miloika jaki ezberdin prestatu zi tuen, quziak Ximonei gozamenerako. Kroketak, arrain zopa, legatza saltsan, lekak porrusalda, arroza, babarrunak, marmilakoa...



Ainhoak ordia bere baseria eta qurasoak botatzen zituen fallan. Ximonen jarrera ere berekiko asko aldatu zen, beraz une tzinobe aza zela pentatsu zuen, zera...

A- Ximon, ni neu ere boi pentatzan aritu naiz eta... Zer deritzozu nere baserrira bizitzera elottiko baztina?



Berhala adostasun batelara heldu ziren eta azeri gosetia Ainhoaren baserrira bizitzera joan zen. Basertian biziaz ez ziluen bertako abere qetiaqo iopurtu eta horren truke Ainhoak prestaturiko jokiak dastatu zen jarrailu zuen. Gaur egun oraindikon quziak elkarrekin eta zoriontsu ziri direla esaten daite.



